



EASO PLAZAKO KOMUN PUBLIKOAK
F MAILA

EASO PZ, ZG



Egileak eta data: Lucas / J.R, Alday; 1923.

Deskribapena

Lurpeko komun publikoetako zuzkidura, gainazalean zutabe luminaria baten bidez seinalezatuak, eta zutabe horren inguruan sortzen dira eskailera kurbatu bidezko sarbideak. Ekipamendu publikoko programa, XX. mendeko bereizgarria, mentalitate higienista bati dagokiona.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: zutabea, baranda eta harrizko zokaloa.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: babesak sestra gainean dauden elementuak soilik hartzen ditu; ez dira sestra gainean zabalteak baimentzen; egokitasuna eta komenigarritasuna justifikatu ostean, elementu babestuak gaur egungo kokalekutik lekuz aldatu ahal izango dira eta egoki jotzen den beste leku batera eraman ahal izango dira.